

III. ESPERIENTZIA PRAKTIKOAK >>>

8

HEDABIDEAK ETA EUSKARA ZARAUTZEN, 2006 IKERKETAREN EMAITZAK

Iñaki Iurrebaso Biteri,
AZTIKER

Helbide elektronikoa: iurrebaso@aztiker.com

1. 'Hedabideak eta euskara Zarautzen 2006' ikerketa

2006. urte hasieran Zarauzko Udaleko Euskara Zerbitzuak Aztikerreko teknikarioroi proposatu zigunean euskara eta hedabideak gaia aztertzeke ikerketa egitea, erronka interesgarria iruditu zitzaigun.

Lehenagotik ere bagenekien euskaraz dakigunak gutxi garela Euskal Herrian (herritar guztien laurdenak baino apur bat gehiago besterik ez gara elebidunak), eta erdarazko hedabideak baliatzen ditugula hein oso handian. Hedabideen audientzien ikerketek aldika-aldika eskaintzen dituzten datuetan ere horixe ikusten da: euskarazko hedabideek ikusle, entzule eta irakurle kopuru apalak dituzte. Euskal Herriko herritarren %27,6¹ inguru euskaldunak izanik, kopuru horretatik oso-oso urruti gelditzen da euskarazko hedabideak kontsumitzen dituztenen kopurua. Bi datu aipatzearren: ETB1k 2006. urtean ikusleen %4,4 bereganatu omen zituen, batez beste, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, Sofresen datuen arabera. Eta Hego Euskal Herrian egunkaria irakurri zutenen %5,2k irakurri zuten Berria egunkaria egun arrunt batean, CIESen ikerketen arabera².

Jakin bagenekien, halaber, hedabideek berebiziko garrantzia dutela 'komunikazioaren aroa' deitu ohi duten honetan. Kontuan izan behar da

aisialdiko denbora gehiena hedabideak kontsumitzen ematen dutela herritar gehienek³; eta pentsa daiteke, halaber, hitz egiten, entzuten, edo irakurtzen ematen dugun denbora guztia neurtuko bagenu, zati handi bat hedabideak kontsumitzen ematen dugula. Azkenean, bizitzaren zati oso handia ematen dugu hedabideak ikusten, entzuten eta irakurtzen. Kualitatiboki, bestalde, argi dago hedabideek zer garrantzi handia duten jendartean ereduak hedatzerakoan; hizkuntzez ari garenean, zehazki, ezin uka daiteke gaur egun hedabideek zer leku garrantzitsua duten, adibidez, hizkuntzaren erregistro berriak hedatzeko lanean. Gai garrantzitsua iruditzen zitzaigun, beraz, Zarauzko Udaletik proposatu zigutena. Gai estrategikoa, ezbaierik gabe, euskararen berreskurapen prozesuan.

Gaia interesgarria izateaz gain, horrelako ikerketa baterako une egokia zela iritziz genion: azken urteotan Zarautzen, eta Euskal Herrian ere bai, geroz eta hedabide gehiago ditugu, euskarazko tokiko hedabide geroz eta gehiago, bereziki. Une aproposa da, beraz, bidean geldialditxo bat egin eta nola goazen hausnartzeko.

Bestalde, toki ere (Zarauzko udalerrria) ezin aproposagoa iruditu zitzaigun gai horien inguruko ikerketa egiteko. Bere ezaugarri soziodemografikoengatik eta soziolinguistikoengatik iruditu zitzaigun Zarautz toki aproposa: herri urbanoa eta moderno izateaz gain, herri nahiko euskalduna da Zarautz (Euskal Herriko testuinguruan); 20.000 biztanle baino gehiagoko Euskal Herriko hiri eta herri guztiak kontuan hartuta, Zarautz dugu (zentsuetako datuen arabera, betiere⁴), herririk elebidunena. Oinarritzko ezaugarri horiek laborategi egoki bihurtzen zuten Zarautz. Gainera, Euskal Herri osoan diharduten euskarazko hedabideez gain (ETB1, Berria, Argia, Euskadi Irratia, eta abar), euskarazko tokiko hedabideetan eskaintza zabala dute zarautzarrek: Urola Kostako Hitza egunkaria, Txaparro aldizkaria, Zarauzko Telebista (ZTB)... Zarauzko hedabide euskaldunen eskaintza Euskal Herriko herri gehienetakoa baino dezente zabalagoa da, inolako zalantzarik gabe. Eta horrek ere, plaza interesgarria egiten zuen Zarautz gai horren inguruko ikerketa egiteko.

2. Ikerketaren helburuak eta xehetasun teknikoak

Horrela bada, gogotsu heldu genion ikerketa honek ekarri zigun erronkari. Hauek izan ziren geure buruari jarri genizkion helburuak:

- Hedabideen kontsumo-ohiturak (telebista eta egunkariena zehazki⁵) ezagutzea, eta zenbakietara ekartzea.
- Kontsumo hori hizkuntzaren ikuspegitik aztertzea (*euskalduna* versus *erdalduna*).
- Kontsumo euskaldunaren logikara hurbiltzea, galdera honi erantzunez: nork (herritarren zein alorrek) kontsumitzen du gehiago euskaraz eta nork gehiago erdaraz?

Lehenagotik ere bagenekien euskaraz dakigunak gutxi garela Euskal Herrian (herritar guztien laurdenak baino apur bat gehiago besterik ez gara elebidunak), eta erdarazko hedabideak baliatzen ditugula hein oso handian. Hedabideen audientzien ikerketek aldika-aldika eskaintzen dituzten datuetan ere horixe ikusten da: euskarazko hedabideek ikusle, entzule eta irakurle kopuru apalak dituzte.

*Azken urteotan
Zarautzen, eta Euskal
Herrian ere bai, geroz eta
hedabide gehiago ditugu,
euskarazko tokiko
hedabide geroz eta
gehiago, bereziki. Une
aproposa da, beraz,
bidean geldialditxo bat
egin eta nola goazen
hausnartzeko.*

Helburu horiek erdiestera bideratu genuen gure ikerketaren diseinu metodologikoa. Helburuak halakoak izanik, ikerketaren metodozko hau-tu argia egin beharra geneukan. Ezinbestekoa zen herritarren portaerak zenbatzea, eta horretarako, nahitaezkoa zen inkesta egitea. Bestalde, hirugarren helburua betetzeko, herritarren zein alorrek kontsumitzen duen gehiago euskaraz eta zeinek erdaraz jakitera iristeko, alegia, ezinbestekoa zen inkesta kopuru handi samarra egitea, modu horretara, azpi-laginen kopuru egokia ziurtatzeko. Ezinbestekoa zen, azkenik, aztertu beharreko gaiak zehatz jasoko zituen galdera sorta egitea.

Landa lana 2006ko maiatzaren 23a eta ekainaren 17a bitartean egin genuen. Azkenean, 1.021 zarautzarren informazioa eskuratu genuen. Horrek $\pm 3,0$ ko akats tartea ematen digu lagin osorako %95,5eko konfian-tza mailan eta $p=q=\%50,0$ denerako. Xehetasunak xehetasun, gaia aztertze-ko eta hausnartzeko moduko lehengai nahiko sendoa dugulakoan gaude. Metodozko oharrak eta erabilitako galdera sortak, ikerketaren emaitzen txostenekin batera, eskura dituzue Zarauzko udaleko www.zarautz.org webgunean edo aztikerren webguneko www.aztiker.com/euskaradat/txosten helbidean.

3. Hedabideen kontsumoa Zarautzen: %80 erdaraz, %20 euskaraz

Txosten horietan datu ugari aurkituko dituzue zarautzarren hedabideen kontsumoari buruz. Hor ikusiko duzue, adibidez, telebista egunero ikusteko ohitura oso errotua dagoela zarautzarren artean, ETB1 dela gehien ikusten duten telebista katea, eta atzetik datozela T5, ETB2, A3, Cuatro eta TVE1 kateak. Txosten horietan ikusi ahal izango duzue, hala-ber, Zarauzko herritar gehienek (bi herenek edo) irakurri ohi dutela egunkaria egun arrunt batean, *Diario Vasco* dela irakurriena eta bigarren postua, berriz, *Urola Kostako Hitza* egunkariak betetzen duela, zeinak urte gutxitan toki nabarmena eskuratu baitu Zarauzko etxeetan. Ikusi ahal izango duzue bi egunkari horien atzetik datozela *Berria*, *Gara*, *Diario de Noticias* eta gainerakoak. Ikusi ahal izango duzue, gainera, datu horiek aldatu egiten direla herritarren sexuaren, adinaren, zonaldearen, lanbidearen, hizkuntza gaitasunaren eta beste hainbat aldagaien arabe-ra. Horien guztien inguruko informazio zabala eta xehea aurkituko duzue txostenetan.


Baina datuen ugaritasun horretan galtzeko arriskua saihestu nahirik, gaurkoan estuki lotuko gatzazkie gure ikerketaren helburuei. Horrela, lehenik eta behin, aurkeztuko dugu herritarren hedabide-kontsumoa zein neurritan egiten den euskaraz eta zein neurritan egiten den erdaraz. Horren inguruko hausnarketari ekiteko, hona sintesirako pare bat datu:

Telebista ikusten ematen duten denboraren %20,7 euskarazko tele-bistak ikusten egiten dute 5 eta 69 urte bitarteko zarautzarrek (kopuru

hori %18,4ra jaisten da haurrak albo batera utzi eta 15-69 urte bitarteko zarauztarrak aintzat hartuta).


Egunkariak irakurtzen ematen duten denboraren %20,1 euskarazko egunkariak irakurtzen egiten dute 15 eta 69 urte bitarteko zarauztarrek.

1. TELEBISTA IKUSTEN EMATEN DUTEN DENBORAREN BANAKETA, HIZKUNTZAREN ARABERA. ZARAUZ, 2006 (5 eta 69 urte bitarteko zarauztarrak, %)



Iturria: Aztiker, Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006

2. EUSKARAZKO ETA GAINERAKO EGUNKARIAK IRAKURTZEN EMATEN DUTEN DENBORAREN BANAKETA. ZARAUZ, 2006 (15 eta 69 urte bitarteko zarauztarrak, %)



Iturria: Aztiker, Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006

Denboraren gainerako %80 ingurua, hortaz, erdarazko hedabideak ikusten eta irakurtzen ematen dute zarauztarrek.

Kopuru horien oinarrian, berariaz kalkulaturako tasa batzuk ditugu: *euskararen erabilera tasa, telebista ikusterakoan eta euskararen erabilera tasa, egunkariak irakurtzerakoan*. Garrantzitsua da tasa horien esanahia zein den ondo ulertzea, horiekin lan egingo baitugu gaur. C. koadroan ikus daitekeen bezala, telebistari buruzko *euskararen erabilera tasak* honako hau adierazten du, ehunekoetan: Zarauzko herritarrek telebista ikusten ematen duten denbora guztia zenbatu (batu) eta horren baitan euskarazko bi telebistak (ETB1 eta ZTB) ikusten zenbat denbora ematen duten. Prentsa

Helburuak:

- Hedabideen kontsumo-ohiturak (telebista eta egunkariena zehazki) ezagutzea, eta zenbakietara ekartzea.
- Kontsumo hori hizkuntzaren ikuspegitik aztertzea (euskalduna versus erdalduna).
- Kontsumo euskaldunaren logikara hurbiltzea, galdera honi erantzunez: nork (herritarren zein alorrek) kontsumitzen du gehiago euskaraz eta nork gehiago erdaraz?

idatziari buruzko *euskararen erabilera tasak*, noski, gauza bera egiten du prentsa idatziarentzat⁶.

3. EUSKARAREN ERABILERA TASA TELEBISTA IKUSTERAKOAN ETA EGUNKARIAK IRAKURTZERAKOAN

	Euskararen erabilera tasa, telebista ikusterakoan	= 100 *	Egun jakinean (bezperan) herritarrek ETB1 eta ZTB kanalak ikusten eman duten denbora (batura)	
			Egun jakinean (bezperan) herritarrek telebista ikusten eman duten denbora (batura)	
	Euskararen erabilera tasa, egunkariak irakurtzerakoan	= 100 *	Egun jakinean (bezperan) herritarrek Urola Kostako Hitzza eta Berria egunkariak irakurtzen eman duten denbora (batura)	
			Egun jakinean (bezperan) herritarrek egunkariak irakurtzen eman duten denbora (batura)	

4. Herritarren zati handi batek ez du batere ohiturarik euskarazko hedabideak ikusteko eta irakurtzeko

Esan beharrik ez dago tasa hauek batez besteko ohiturak islatuko dituztela. Baina, herritarren artean ohiturak ez dira inondik inora homogeneoak. Badago gutxiengo bat, zarautzarren %10 inguru, nagusiki (edo soilik) euskarazko hedabideak ikusten eta irakurtzen dituenak. Beste muturrean, Zarauzko herritarren herenak baino gehixeagok ez dute inolako ohiturarik euskarazko hedabideak ikusteko eta irakurtzeko. Azken astean ETB1 behin ere ikusi ez dutenak zarautzarren %43,9 dira. Horietako askok ez dakite euskaraz, baina Zarauzko elebidunen artean ere laurdenek (%24,5) ez dute telebista hori behin ere ikusi azken astean. Zarautzarren ia erdiek (%48,0), bestalde, ez dute euskarazko prentsa idatzia irakurtzeko inolako ohiturarik. Kopuru hori %27,8koa da elebidunen artean.

Badago, beraz, herritarren sail handi bat euskal hedabideak ikusteko eta irakurtzeko inolako ohiturarik ez duena. Eta badago, halaber, beste mutur bat euskarazko hedabideak oso maiz ikusten eta irakurtzen dituenak. Bi muturren artean daude gainerako zarautzarrak. Eskuragarri dituzuen txostenetan aurkituko dituzue euren kontsumo ohituren arabera zenbaki zehatzak. Gaurko azalpenean, ordea, arestian aipatu ditugun erabilera tasetan oinarrituko gara gehienbat.

5. Zoru soziolinguistikoaren eta hedabideen kontsumoaren arteko leizea


Esan bezala, zarautzarrek telebista ikusten eta egunkaria irakurtzen eman duten denbora guztiaren artean, euskarazko hedabideak ikusten eta

irakurtzen ematen dutena %20aren ingurukoa da. Zarautzarrek, hortaz, erdarazko hedabideak baliatzen dituzte gehienbat. Zehazki, aurreko kopuruak beste modu batean irakurrita, zera esan dezakegu: lau aldiz denbora gehiago ematen dute erdarazko hedabideak ikusten eta irakurtzen, euskarazkoak ikusten eta irakurtzen baino. Aldea, beraz, oso handia da.

Baina %20 hori, hedabideen kontsumoan euskarak eskuratzen duen hori, asko da ala gutxi da? Ezin galdera horri erantzun testuinguru soziolinguistikoa zein den ezagutu gabe. Eta, egia esan, Zarauzko errealitate soziolinguistikoari buruz ditugun datuak eta hedabideen kontsumoari buruzkoak parez pare jarrita, oso argi ikusten da desoreka dagoela.

Zarauzko zoru soziolinguistikoaren argazki azkarrean ikusten da zarautzarren %71,5 elebidunak direla, euskararen kale erabilera %66,5ekoa dela eta etxeetako elkarriketetan euskarak duen lekua, berriz, %47,7koa dela. Euskarak toki handia duen udalerrri baten datuak ditugu horiek. Telebista ikusterakoan eta egunkariak irakurtzerakoan, ordea, %20 ingurura murrizten da euskararen lekua. Agerikoa da, beraz, errealitate baten eta bestearen arteko desoreka.

5. HIZKUNTZA GAITASUNA, EUSKARAREN KALE ERABILERA, ETXEETAKO ERABILERA, TELEBISTA IKUSTEKO GARAIA DAGOEN ERABILERA ETA EGUNKARIAK IRAKURTZERAKOAN DAGOEN ERABILERA. ZARAUTZ, 2006. (%)



Iturria: Aztiker, *Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006*

Nabarmena da, beraz, euskarazko hedabideak baliatzeko orduan, badagoela hutsune edo ahuldaderen bat: beste esparru batzuetan (etxean zein kalean hitz egiterakoan) baino askoz leku gutxiago du euskarak hedabide-kontsumoan. Aldeak, gainera, ez dira nolanahikoak; hedabide-

Landa lana 2006ko maiatzaren 23a eta ekainaren 17a bitartean egin genuen. Azkenean, 1.021 zarautzarren informazioa eskuratu genuen. Horrek $\pm 3,0$ ko akats tarte ematen digu lagin osorako %95,5eko konfiantza mailan eta $p=q=\%50,0$ denerako. Xehetasunak xehetasun, gaia aztertzeke eta hausnartzeko moduko lehengai nahiko sendoa dugulakoan gaude

Telebista ikusten ematen duten denboraren %20,7 euskarazko telebistak ikusten egiten dute 5 eta 69 urte bitarteko zarauztarrek (kopuru hori %18,4ra jaisten da haurrak albo batera utzi eta 15-69 urte bitarteko zarauztarrak aintzat hartuta).

Egunkariak irakurtzen ematen duten denboraren %20,1 euskarazko egunkariak irakurtzen egiten dute 15 eta 69 urte bitarteko zarauztarrek.

Denboraren gainerako %80 ingurua, hortaz, erdarazko hedabideak ikusten eta irakurtzen ematen dute zarauztarrek.

en kontsumoan euskarak duen tokia etxeko edo kaleko elkarriketetan duenaren erdia baino dezente txikiagoa da.

6. Leizearen arrazoi bat: eskaintza ere erdalduna da nagusiki. Badirudi euskarazko eskaintza zabaltzeak euskarazko kontsumoa handitzea dakarrela ('Hitza'-ren adibidea)

Zoru soziolinguistikoaren eta hedabideen kontsumoan euskarak duen tokiaren arteko leizearen arrazoi bat honako hau dela pentsatzeko aski arrazoi badago: euskarazko eta erdarazko eskaintzen arteko desoreka bera. Egia esan, ez zen gure ikerketaren helburua eskaintza aztertzea eta euskarazko komunikabideen eskaintzak kontsumoarekin zer harreman duen aztertzea. Hala ere, nahitaezkoa da eskaintza ere kontuan hartzea egoeraren argazki osoa egin nahi badugu.

Izan ere, Zarauztarrek eskura dituzten telebista eta egunkari gehienak erdarazkoak dira, gutxi batzuk besterik ez euskarazkoak. Guk, zehazki, gure ikerketan, 9 telebista ikusteko eta 10 egunkari irakurtzeko ohiturak aztertu ditugu. Horietatik, bi telebista eta bi egunkari plazaratzen dira euskaraz. Gainerako guztiak erdara hutsez edo nagusiki erdaraz aritzen dira. Eta Zarauzko kioskoetara joaten den edonork badaki hamar egunkari horiek baino gehiago ere badirela eskura, guztiak erdaraz, eta zer esanik ez telebistak: gaur egun ehunka erdal telebista ikus daitezke Zarautzen, beste edonon bezala, geroz eta merkeagoa eta esku-ragarriagoa dagoen teknologiaren laguntzaz.

Erdarazko eskaintza handi horren parean, oso mugatua da euskarazkoa. Eta eskaintzaren testuinguru hori kontuan hartuta, argi esan dezakegu Zarautzen hedabideen kontsumotik euskaraz egiten den %20 urri hori ez dela hain urria, euskarazko hedabide horiek, oro har, gainerako hedabideek baino ikusle eta irakurle gutxiago dituztelako. Aitzitik, Zarauzko audientzia zerrendetan euskarazko hedabideek toki ona dute, oro har: ETB1ek lehen tokia betetzen du telebisten zerrendan eta ZTBk zazpigarrena (aztertu ditugun bederatzi kateen artean). Aztertu ditugun hamar egunkarien artean ere, euskarazko biek bigarren eta hirugarren tokia dute, *Diario Vascoren* atzetik, *Hitzak* bigarrena eta *Berriak* hirugarrena. Orokorrean, eta batez beste, bada, erdarazko hedabideek baino harrera hobia dute euskarazkoek Zarautzen.

Zarautzen, behintzat, %20 urri horren arrazoiak ez litzateke euskarazko hedabideak gutxi ikusten eta irakurtzen direla, erdarazko eskaintza ugariaren ondoan euskaraz eskaintzen direnak gutxi direla baizik.

Euskarazko eskaintza hain urria izanik, eta oraingoz hipotesi gisa planteatuko dugun arren, pentsa daiteke beste euskal hedabide bat plazaratzeko euskarazko kuota igotzea ekarriko duela. Hipotesi hori frogatzeko, egia esan, bi azterketa ildo landu ahal izango lirateke: batetik, eremu jakin bat hartu eta urtez urte audientzien bilakaera zein izan den

aztertu beharko litzateke, eta euskal hedabide berriak plazaratu izan direnean euskarazko kontsumoan horrek zer aldaketa eragin dituen neurtu beharko litzateke. Bestetik, eta helburu beraren atzetik, euskal hedabide berriak sortu izan diren guneetako eta horrelakorik sortu izan ez den tokietako herritarren ohiturak alderatu ahal izango lirateke.

Tamalez, ez dugu horrelako azterketarik esku artean. Zarautzen 2006an nolako ohiturak zeuden jakinda hedabideak baliatzerakoan, uste dugu badugula esaterik Zarautzen Euskal Herriko toki gehienetan baino euskarazko eskaintza handiagoa izateak zerikusia duela %20 horrekin. Eta Zarautzen euskarazko tokiko hedabideek eskuratu duten audientziari zor zaiola, besteak beste, %20 hori nabarmen txikiagoa ez izatea. Izan ere, gaur egun zarauztarrek prentsa irakurtzen ematen duten denboraren %20,1 horren zatirik handiena *Hitza* irakurri izanari dagokio (euskarazko denbora horren erdia baino dezente gehiago, %59 inguru). Eta pentsa daiteke hedabide hori plazaratu izanak euskaraz gehiago irakurtzea (nabarmen gehiago irakurri ere) ekarri duela Zarautzen. Besteak beste, euskarazko prentsa irakurtzeko ohiturarik ez zuen alorretara ere iristea lortu duelako *Hitzak*. Apalagoa da ZTBren ekarpena: telebista ikusten emandako denboraren %20,7 euskaraz izanik, denbora horren zati bat %7 dagokio ZTB ikusten emandakoari. Gaurko azalpenean, azkenik, ez dugu *Txaparro* aldizkaria aipatu, baina agerikoa da Zarauzko elebidunen erdiek baino gehiagok (%52,7) irakurtzen duten aldizkari horrek ere baduela bere lekua orain arte aipatutakoan.

7. Erdaldunek erdaraz... eta elebidunek bietara, baina erdaraz euskaraz baino dezente gehiago


Baina ekar dezagun gogora ikerketa honen gai nagusia, beste behin: zein hizkuntzatako hedabideak aukeratzen dituzten zarauztarrek, hain zuzen. Bada hor, merkatuko joerak aipatzerakoan, erro-erroan egin behar den bereizketa bat. Izan ere, orain arteko zenbakietan zarauztar guztiak hartu ditugu aintzat, elebidunak eta euskaraz ez dakitenak bereizi gabe. Eta, noski, arras ezberdinak dira batzuen eta besteen jokabideak.

Erdaldunek ez dituzte euskarazko hedabideak ikusten eta irakurtzen. Zehazki, telebista ikusteari emandako denbora ia guztia (%98,6) erdarazko kanalei begira ematen dute erdaldunek, eta hutsaren hurrena da (%1,4) euskarazko telebistei begira ematen duten denbora. Egunkarien kasuan, erabatekoagoa da datua: gure laginean ageri ziren erdaldun guztiek ez zuten minutu bakarra ere eman euskarazko egunkariak irakurtzen.

Badago gutxiengo bat, zarauztarren %10 inguru, nagusiki (edo soilik) euskarazko hedabideak ikusten eta irakurtzen dituenen. Beste muturrean, Zarauzko herritarren herenek baino gehixeagok ez dute inolako ohiturarik euskarazko hedabideak ikusteko eta irakurtzeko. Azken astean ETB1 behin ere ikusi ez dutenak zarauztarren %43,9 dira. Horietako askok ez dakite euskaraz, baina Zarauzko elebidunen artean ere laurdenek (%24,5) ez dute telebista hori behin ere ikusi azken astean. Zarauztarren ia erdiek (%48,0), bestalde, ez dute euskarazko prentsa idatzia irakurtzeko inolako ohiturarik. Kopuru hori %27,8koa da elebidunen artean.

Zarauzko zoru soziolinguistikoaren argazki azkarrean ikusten da zarauztarren %71,5 elebidunak direla, euskararen kale erabilera %66,5koa dela eta etxeetako elkarrizketetan euskarak duen lekua, berriz, %47,7koa dela. Euskarak toki handia duen udalerrri baten datuak ditugu horiek. Telebista ikusterakoan eta egunkariak irakurtzerakoan, ordea, %20 ingurura murrizten da euskararen lekua. Agerikoa da, beraz, errealitate baten eta bestearen arteko desoreka.

6. EUSKARAREN ERABILERA TASA, TELEBISTAREN ETA EGUNKARIEN KONTSUMOAN, HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARABERA. ZARAUZ, 2006 (%)



Iturria: Aztiker, *Hedabideak eta Euskara Zarautzen*, 2006

Elebidun hartzaiak ere (euskara ulertu bai baina hitz egiteko gai ez diren horiek) erdarazko hedabideak baliatzen dituzte ia erabat. Zarauztar horiek, euskaraz ulertzeko gai izan arren, erdarazko telebistei begira ematen dute denboraren %95,5 eta erdarazko egunkariak irakurtzen %98,9. Elebidun hartzaiak buruzko beste datu batzuek argi erakusten dute sail horrek ez duela ohiturarik euskarazko hedabideetara jotzeko: hamarretik bederatzik azken astean ez dute ETB1 behin ere ikusi; eta hamarretik bederatzik ez dute azken astean ez *Berria*-ren ez *Hitza*-ren ale bakar bat ere irakurri. Datuek argi adierazten dute, hortaz, oso elebidun hartzaiak gutxi hurbiltzen direla euskarazko hedabideetara. Euskaraz ondo ulertzea, nonbait, ez da nahikoa euskarazko hedabideak kontsumitzeko.

Elebidunen artean, azkenik, nabarmen igotzen da euskarak duen tokia, baina, hala ere, ez da herenera iristen euren kontsumoetan euskarak hartzen duen tokia: telebista kontsumoaren %29,2 egiten dute euskarazko telebistekin eta %70,8 erdarazkoekin; egunkari kontsumoaren %25,7 egiten dute euskarazkoekin eta %74,3 erdarazkoekin. Zarauzko elebidunek, bada, telebista kate eta egunkari erdaldunak eta euskaldunak ikusten eta irakurtzen dituzte, baina neurri handiagoan aukeratzen dituzte kate eta egunkari erdaldunak, euskaldunak baino.

8. Elebidunen artean ere alde oso handiak daude euskarazko hedabideen kontsumoan, euren hizkuntza gaitasunaren arabera (aldagai soziolinguistikoaren eragina, I)

Euskaldun elebidunen barruan ere, guztiek ez dute berdin jokatzeko. Ezberdintasun adierazgarriak aurkitu ditugu euren hizkuntza gaitasuna-


ren arabera sailkatuta. Euskaldunak sailkatzeko, Euskal Herrian egin izan diren Soziolinguistikazko Inkestetako kategoriak erabili ditugu:

- *Erdal elebidunek* (gaztelaniaz euskaraz baino hobeto hitz egiten duten elebidunek) telebista ikusten ematen duten denboraren %19,6 eta egunkariak irakurtzen ematen dutenaren %15,1 bakarrik egiten dute euskaraz.
- *Elebidun orekatuek* (euskaraz zein erdaraz bietan berdintsu hitz egiten dutela diotenek) aurrekoek baino gehiago baliatzen dituzte euskarazko telebistak eta euskaraz idatzizko agerkariak: %26,0 telebistaren kasuan eta %23,2 prentsarenean.
- *Euskal elebidunen kontsumoa* are *euskaldunagoa* da (euskaraz gaztelaniaz baino hobeto hitz egiten dutenena). Horien artean, euskal elebidunek euskarazko telebistak ikusten dituzte telebista ikusten ematen duten denboraren %40,5ean eta euskarazko egunkariak, egunkariak irakurtzen ematen duten denboraren %33,0an.
- *Euskal elebidun trebatuetan* (hitz egin ez ezik, irakurri ere euskaraz hobeto egiten dutenen kasuan), euskarazko kontsumoa %32,7ra iristen da telebistetan eta %40,4ra egunkarietan. Logikoa den bezala, elebidun *trebatuek* euskarazko prentsa gehiago irakurtzen dute euskal elebidun *arruntek* baino. Telebistaren kasuan, aldiz, kontsumo *euskaldunagoa* erakusten dute euskal elebidun *arruntek*, *trebatuek* baino. Alde hori ulertzeko, kontuan hartu behar da elebidun *trebatuak* gazteak direla gehienbat, eta horien artean ETB1ek sarbide urriagoa duela, zaharragoen artean baino.

Zoru soziolinguistikoaren eta hedabideen kontsumoan euskarak duen tokiaren arteko leizearen arrazoi bat honako hau dela pentsatzeko aski arrazoi badago: euskarazko eta erdarazko eskaintzen arteko desoreka bera.

Zarautzen, behintzat, %20 urri horren arrazoia ez litzateke euskarazko hedabideak gutxi ikusten eta irakurtzen direla, erdarazko eskaintza ugariaren ondoan euskaraz eskaintzen direnak gutxi direla baizik.

7. EUSKARAREN ERABILERA TASA, TELEBISTAREN ETA EGUNKARIEN KONTSUMOAN, HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARABERA. ZARAUTZ, 2006 (%)



Iturria: Aztiker, *Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006*

Erdaldunek ez dituzte euskarazko hedabideak ikusten eta irakurtzen.

Elebidun hartzaileek ere (euskara ulertu bai baina hitz egiteko gai ez diren horiek) erdarazko hedabideak baliatzen dituzte ia erabat.

Elebidunen artean, azkenik, nabarmen igotzen da euskarak duen tokia, baina, hala ere, ez da herenera iristen euren kontsumoetan euskarak hartzen duen tokia: telebista kontsumoaren %29,2 egiten dute euskarazko telebistekin eta %70,8 erdarazkoekin; egunkari kontsumoaren %25,7 egiten dute euskarazkoekin eta %74,3 erdarazkoekin.

Hizkuntza gaitasunari eta hedabideen kontsumoari buruz orain arte esandakoa laburtzeko, hiru ideia nagusi emango ditugu:

Lehenengoa, salbuespenak salbuespen, ezagutza ezinbesteko baldintza dela euskarazko hedabideak baliatzeko.

Bigarrena, elebidunek ere erdarazko hedabideak kontsumitzen dituztela nagusiki. Gure datuen arabera, herritar elebidunek euskarazko hedabideekin ematen duten denbora halako bi baino gehiago ematen dute erdarazko hedabideekin. Joera hori alor guzti-guztietan gertatzen da, baita elebidunen alorrik *euskaldunenetan* ere (euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen diren horietan).

Hirugarrena. Harreman argia ikusten da bi alderdien artean: euskaraz zenbat eta gaitasun handiagoa izan, orduan eta gehiago ikusten eta irakurtzen dira euskarazko hedabideak. Bi aldagai horien arteko lotura eta harremana oso argia eta oso indartsua da estatistikoki.


9. Oro har, zenbat eta gehiago erabili euskara etxeko elkarrizketetan, orduan eta gehiago baliatzen dituzte euskarazko hedabideak (aldagai soziolinguistikoen eragina, II)

Argi dago, hortaz, hizkuntza gaitasuna eta hedabideen kontsumoa harremanean dauden bi alderdi direla. Aldagai soziolinguistikoei hedabideen kontsumoan izan dezaketen eragina aztertzen jarraituz, honako galdera sortu zaigu: zer harreman egon daiteke euskarazko hedabideen kontsumoaren eta, oro har, euskaraz egiteko jendeak duen ohituraren artean?

Galdera horri erantzuten saiatzeko, etxean zein hizkuntzatan hitz egiten zuten galdetu genien elkarrizketatuei. Orain ez ditugu galdera horren emaitzak aurkeztuko; etxean batera edo bestera hitz egiten duten hedabideak baliatzerakoan euskarari zer toki ematen dioten azaltzera mugatuko gara. Bi alderdi horiek harremanetan jarritz sortu dugu G. grafikoa. Beste behin, oso logika argia erakusten dute datuek: etxean zenbat eta euskara gehiago erabili, orduan eta toki gehiago eskaintzen diete euskarazko hedabideei.

Bereziki deigarria gertatzen da, prentsa idatziaren kasuan, etxean euskaraz besterik hitz egiten ez dutenek askoz ere gehiago irakurtzen dutela, gainerakoek baino. Etxean bietara baina nagusiki euskaraz hitz egiten dutenek, euren prentsa kontsumoaren %14,3 egiten dute euskaraz, eta kopuru hori %36,3raino igotzen da etxean euskaraz soilik hitz egiten dutenen kasuan.

8. EUSKARAREN ERABILERA TASA, TELEBISTAREN ETA EGUNKARIEN KONTSUMOAN, ETXEAN ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZAREN ARABERA. ZARAUTZ, 2006 (%)



Iturria: Aztiker, *Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006*

10. Etorkizuneko Euskal Herria zenbat eta euskaldunagoa desiratu, orduan eta gehiago baliatzen dituzte euskarazko hedabideak (aldagai soziolinguistikoen eragina, III)

Orain arte ikusitakoarekin, beraz, argi dago hizkuntza gaitasunak zein etxeko erabilerak zerikusia dutela euskarazko hedabideak ikusteko eta irakurtzeko orduan. Baina bada egin daitekeen beste galdera bat ere: euskararekiko jarrera eta iritziek, ba al dute zerikusirik euskarazko hedabideen kontsumoarekin?

Gai horretan sakontzeko asmoz, Euskal Herrian etorkizunean zein hizkuntza hitz egitea nahiko luketen galdetu genien. Emaitzak irakurrita, zarautzarren %39,6k euskaraz soilik hitz egitea nahiko lukete; %22,2k euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egitea, eta %35ek bietan berdin hitz egitea. Oso gutxik erantzun zuten, %2,1ek besterik ez, gaztelaniaz soilik edo gaztelaniaz euskaraz baino gehiago hitz egitea nahiago luketela.

Ikus dezagun orain iritzi batekoak eta bestekoak direnen artean alde-rik ikusten ote den euskarazko hedabideen kontsumoan. H. grafikoan argi ikusten den bezala, euskaraz etorkizunean izan beharreko lekuari buruzko iritziak eta euskarazko hedabideen kontsumoa, bi aldagai horiek harremanetan daude. Etorkizuna *euskalduna* nahi duten herritarrek kontsumitzen dituzte gehien euskarazko hedabideak. Eta zenbat eta *euskaldunagoa* desiratu etorkizun hori, orduan eta maiztasun handiagoz ikusten eta irakurtzen dituzte euskarazko hedabideak.

Hizkuntza gaitasunari eta hedabideen kontsumoari buruz orain arte esandakoa laburtzeko, hiru ideia nagusi emango ditugu:


- *Lehenengoa, salbuespenak salbuespen, ezagutza ezinbesteko baldintza dela euskarazko hedabideak baliatzeko.*

- *Bigarrena, elebidunek ere erdarazko hedabideak kontsumitzen dituztela nagusiki. Gure datuen arabera, herritar elebidunek euskarazko hedabideekin ematen duten denbora halako bi baino gehiago ematen dute erdarazko hedabideekin. Joera hori alor guzti-guztietan gertatzen da, baita elebidunen alorrik euskaldunenetan ere (euskaraz erdaraz baino hobeto moldatzen diren horietan).*

- *Hirugarrena. Harreman argia ikusten da bi alderdien artean: euskaraz zenbat eta gaitasun handiagoa izan, orduan eta gehiago ikusten eta irakurtzen dira euskarazko hedabideak. Bi aldagai horien arteko lotura eta harremana oso argia eta oso indartsua da estatistikoki.*

Etorkizuna euskalduna nahi duten herritarrek kontsumitzen dituzte gehien euskarazko hedabideak. Eta zenbat eta euskaldunagoa desiratu etorkizun hori, orduan eta maiztasun handiagoz ikusten eta irakurtzen dituzte euskarazko hedabideak.

9. EUSKARAREN ERABILERAREN TASA, TELEBISTAREN ETA EGUNKARIEN KONTSUMOAN, ETORKIZUNEKO EUSKAL HERRIAN HITZ EGITEA NAHIKO LUKETEN HIZKUNTZAREN ARABERA. ZARAUTZ, 2006 (15 eta 69 urte bitarteko herritarrek, %)



Iturria: Aztiker, *Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006*

11. Aldagai soziolinguistikoen eta euskarazko kontsumoaren arteko harremana adierazgarria da kasu guztietan, hizkuntza gaitasunarenean, bereziki (aldagai soziolinguistikoen eragina, IV)

Harreman argia du, beraz, euskarazko hedabideen kontsumoak, hizkuntza gaitasunarekin, etxeko erabilerarekin eta baita euskararekiko jarrera subjektiboarekin ere: euskarak toki handiagoa du telebista ikusteko eta egunkariak irakurtzeko herritarren ohituretan, horiek zenbat eta hizkuntza gaitasun handiagoa izan, etxean zenbat eta euskaraz gehiago egin eta zenbat eta euskaltzaleagoa izan. Hiru aldagai horien kasuetan, hiruretan da estatistikoki adierazgarria euskarazko hedabideen kontsumoarekin duten harremana. Harreman estuena, hala ere, hizkuntza gaitasunarekin du.

Hiru aldagai horiek (elkarrekin harreman positibo estua dutenak, bestalde) gurutzatuz, herritarren tipologiak sortu ditzakegu. Eta horrela sortutako tipologien artean izugarritzko aldeak ikus daitezke batzuen eta besteen artean, betiere euskarazko hedabideen kontsumoari dagokionez. Ariketa gisa, eta aztertutako hiru aldagai soziolinguistikoak harremanetan jarrita, honako bi muturreko tipologia eraiki ditugu, eta euren ohiturak aztertuta, ezin argiago ikusten dira aldeak muturreko bi talde horien artean:

- Telebista ikusterakoan euskararen lekua %53,6ra igotzen da euskal elebidunak diren (euskaraz erdaraz baino hobeto egiten duten) eta etxean euskaraz soilik mintzatzen diren eta Euskal Herriaren etorkizuna euskara hutsean nahiko luketen zarautzarren artean. Prentsa

idatzien kasuan, %51,8koa da zarautzarren sail horretan euskarazko hedabideen erabilera tasa.


- Aitzitik, telebistaren kasuan %8,0ra jaisten da euskararen erabilera tasa erdal elebidunak diren (erdaraz euskaraz baino hobeto hitz egiten duten) **eta** etxean bietara berdinean edo gehiago erdaraz egiten duten **eta** etorkizuneko Euskal Herrian erdaraz euskaraz adinako lekua edo handiagoa izatea nahiko luketenen artean. Prentsa idatzien kasuan, %6,5era murrizten da herritar elebidunen sail zehatz horretan euskarazko hedabideen erabilera tasa.

12. Haurrek askoz gehiago ikusten dute euskarazko telebista, gainerakoek baino; nerabegarora helduta, telebista kontsumoa izugarri 'erdalduntzen' da (adinaren arabera kontsumoa, I)

Herritarrek hedabideen kontsumoa hizkuntza batean ala bestean egiten duten azaltzerakoan, hortaz, zerikusi argia dute aldagai soziolinguistikoek. Ez dira, ordea, ikerketaren emaitzen argitara, aztertu dugun fenomenoarekin zerikusia duten aldagai bakarrak; sexuaren, adinaren, lanbidearen eta bizitokiaren arabera aldea ere aztertu ditugu.

Hasteko, esan dezagun, apenas ikusten den alderik gizonen eta emakumeen jokabideetan, bai, ordea, gainerako hiru aldagaiekin arabera ohituretan. Horien artean, alderik aipagarrienak adinari dagozkionak dira. Horretaz arituko gara jarraian.

10. EUSKARAREN ERABILERA TASA, TELEBISTAREN KONTSUMOAN, ADINAREN ARABERA. ZARAUTZ, 2006 (%)



Iturria: Aztiker, Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006

Haurrak dira, alde handiarekin gainera, Zarautzen euskarazko telebista gehien ikusten dutenak. Batez beste, telebista ikusten ematen duten den-

Harreman argia du, beraz, euskarazko hedabideen kontsumoak, hizkuntza gaitasunarekin, etxeko erabilerarekin eta baita euskararekiko jarrera subjektiboarekin ere: euskaraz toki handiagoa du telebista ikusteko eta egunkariak irakurtzeko herritarren ohituretan, horiek zenbat eta hizkuntza gaitasun handiagoa izan, etxean zenbat eta euskaraz gehiago egin eta zenbat eta euskaltzaleagoa izan. Hiru aldagai horien kasuetan, hiruretan da estatistikoki adierazgarria euskarazko hedabideen kontsumoarekin duten harremana. Harreman estuena, hala ere, hizkuntza gaitasunarekin du.

*Badirudi nerabezaroan,
bizitzaren beste alor
ugaritan bezala,
telebistaren kontsumoan
haustura handia
gertatzen dela. Eta
haustura horrek errotik
eragiten die nerabe eta
gazteek ikusten dituzten
telebista kateei,
euskarazkoen kalterako.
Adin tarte horietan, 15
eta 34 urte bitartean,
beste edozein adin
tartetan baino denbora
gutxiago erabiltzen dute
zarauztarrek euskarazko
telebista ikusten.*

boraren erdia inguru euskarazko telebistak ikusten ematen dute, eta beste erdia erdarazkoak ikusten. Zehazki, gure datuen arabera, haur euskaldunek telebista ikusten ematen duten denboraren %51,8 euskarazko ETB1 (nagusiki) edo ZTB ikusten ematen dute. Gazteen artean, berriz, izugarri jaisten da euskarazko telebistek duten tokia: %20,3ra 15 eta 24 urte bitarteko gazte euskaldunen artean eta %16,1era 25 eta 34 urte bitartekoen artean. Datu horiek badituzte, beraz, bere argi-ilunak: pozgarria bada ere haurren joera ikustea, kezagarria da nerabezaroan gertatzen den etena.

Batetik, datuek argi islatzen dute ETB1ek umeen artean arrakasta itzela lortu duela: telebista kate gehienek haur programazio zabala duten arren, telebista ikusten ematen duten denbora guztiaren erdian haurren arreta kate bakar batek bereganatzea, hori lorpen izugarria da, inolako ezbairik gabe.

Bestetik, baina, badirudi nerabezaroan, bizitzaren beste alor ugaritan bezala, telebistaren kontsumoan haustura handia gertatzen dela. Eta haustura horrek errotik eragiten die nerabe eta gazteek ikusten dituzten telebista kateei, euskarazkoen kalterako. Adin tarte horietan, 15 eta 34 urte bitartean, beste edozein adin tartetan baino denbora gutxiago erabiltzen dute zarauztarrek euskarazko telebista ikusten.

Zer dela eta nerabezaro inguruko haustura izugarri hori? Ezer baino lehen, argitu dezagun, haurren eta gazteen artean kontsumo euskaldunengan dagoen alde izugarri horren arrazoia ez dela gaurko haurrak gaurko gazteak baino *euskaldunago* datozelako. Izan ere, Zarauzko haurren eta gazteen artean egon badaude aldeak batzuen eta besteen hizkuntza gaitasunean, ama hizkuntzan, etxean erabiltzen duten hizkuntzan eta eskolako hizkuntza eremuan. Eta egia da, oro har, haurrak *euskaldunago* datozela. Hala ere, haurren eta gazteen arteko aldeak ez dira hain handiak. Ez, behintzat, telebista ikusterakoan euskarak duen tokian halako jauzi izugarria azaltzeko modukoak. Tamalez, datu horiek ez digute adierazten joeretan euskararen aldeko aldaketa historikoa gertatzen ari dela, aitzitik, '*bizitza ziklo*' tankerako fenomeno baten berri ematen digute zeinetan haurrak handitu ahala euskarak atzera egiten duen.

Badirudi, gainera, berri-berria ez den fenomeno zabalago baten parte ere badela aztertzen ari garen hori. Hori ondoriozta daiteke 1989 urte-tik aurrera Euskal Herrian EKB-k eta SEI-k egin izan dituzten euskararen kale erabileraren neurketa guzti-guztien emaitzak irakurrita. Euskal Herrian egindako neurketa horiek behin eta berriz azaleratu baitute haurren hizkuntza joeren eta gazteen artean etena gertatzen dela. Argitaratuta dauden azken datuetan, 2001. urtekoetan, hain zuzen, %19,0koa zen euskararen erabilera haurren artean eta %13,6koa besterik ez 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean. Haurtzaroa atzera uzten den heinean, gazte euskaldun ugari gutxiago egiten dute euskaraz eta gehiago erdaraz. Eta gutxiago ikusten dute telebista euskaraz eta gehiago erdaraz.

Horrela bada, euskarazko telebistaren kontsumoan nerabezaroan gertatzen den atzeraldia fenomeno orokorragoaren parte ere badela esan


genezake. Behin hori esanda, ordea, eta telebistaren kontsumoan nerabearoan gertatzen den *erdalduntze* horren neurria zein den ezagututa, pentsa liteke euskarazko telebistek eskaintzen duten programazioarekin zerikusia duten arrazoiak ere izango direla.

13. Zaharragoek gehiago baliatzen dituzte euskarazkoak, gazteagoek erdarazkoak (adinaren arabera kontsumoa, II)

Haurrek izan ezik, gainerako adin tarte guzti-guztietako zarauztarrek dezente gehiago ikusten dute telebista erdaraz euskaraz baino. Belaunaldi guztiek, hala ere, ez dute joera bera erakusten. Labur esanda, belaunaldi zaharrenek gehiago ikusten dituzte euskarazko kateak belaunaldi gazteek baino. Elebidunen datuei begiratuta, aztertutako adin talde zaharrenean kontsumoaren ia bi bostenak egiten dituzte euskaraz (%38,8). Gazteen artean, ordea, horren erdira jaisten da gutxi gorabehera euskarak duen tokia: 15-24 urte bitarteko gazte euskaldunek euren telebista kontsumoaren %20,3 egiten dute euskaraz, eta 25-34 urte bitartekoek, %16,1. Alde nabarmenak daude, beraz, telebistaren kontsumoan euskarak duen tokia adinaren arabera aztertuz gero: zaharragoek kontsumo *euskaldunagoa* egiten dute, gazteagoek *erdaldunagoa*.

Prentsa idatzian, aldeak lausoagoak dira. Elebidunen artean prentsa irakurketan euskarari toki gutxien ematen diotenak, 15-24 urte bitarteko zarauztarrek dira (%20,3 euskaraz). 25 eta 44 urte bitartekoek euskaraz irakurtzen dute %29 inguru, eta hortik gorakoek, berriz, %25 inguru.

11. EUSKARAREN ERABILERA TASA, EGUNKARIEN KONTSUMOAN, ADINAREN ARABERA. ZARAUTZ, 2006 (%)



Iturria: Aztiker, *Hedabideak eta Euskara Zarautzen*, 2006


Hedabide idatzien azterketa egiterakoan, baina, euskararen ezagutza orokorra ez ezik, herritarrek euskaraz irakurtzeko duten gaitasuna ere kon-

Haurrek izan ezik, gainerako adin tarte guzti-guztietako zarauztarrek dezente gehiago ikusten dute telebista erdaraz euskaraz baino. Belaunaldi guztiek, hala ere, ez dute joera bera erakusten. Labur esanda, belaunaldi zaharrenek gehiago ikusten dituzte euskarazko kateak belaunaldi gazteek baino.

Euskaraz irakurtzeko gai direnen artean ere, 15-24 urteko gazteek egiten diote, berriz ere, toki gutxien euskarari eta gehien erdarari (%20,3 euskarari eta %79,7 erdarari). Eta, bestetik, gainerako belaunaldietakoen artean, %30 eta %34 bitartean kokatzen da euskarak duen tokia, eta ez dago alde esanguratsurik batzuen eta besteen ohituren artean. Gazteenak kenduta, berdintsu erabiltzen dute euskara gainerako guztiek.

tuan hartu behar da. Gure kalkuluak euskaldun guztiak kontuan hartuta egin beharrean euskaraz irakurtzen dakitenen artean eginda, bi ondorio hauetara iritsi gara: batetik, euskaraz irakurtzeko gai direnen artean ere, 15-24 urteko gazteek egiten diote, berriz ere, toki gutxien euskarari eta gehien erdarari (%20,3 euskarari eta %79,7 erdarari). Eta, bestetik, gainerako belaunaldietakoen artean, %30 eta %34 bitartean kokatzen da euskarak duen tokia, eta ez dago alde esanguratsurik batzuen eta besteen ohituren artean. Gazteenak kenduta, berdintsu erabiltzen dute euskara gainerako guztiek.

12. EUSKARAREN ERABILERA TASA, EGUNKARIEN KONTSUMOAN, ADINAREN ARABERA. ZARAUTZ, 2006 (Euskaraz irakurtzen ondo dakiten herritarrek, %)



Iturria: Aztiker, Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006

Prentsa idatziaren esparruan, belaunaldi gazteenaren joera *erdaldunagoa* izatea eta gainerako adin tarteetan alderik ez ikustea, joera aipagarriak iruditzen zaizkigu. Izan ere, hizkuntzaren ikuspegitik oso ibilbide ezberdinak izan dituzten belaunaldiez ari gara, eskolatzeari dagokionez, gehienbat. Muturreko bi belaunaldiak har ditzagun: Zarauzko 15 eta 24 urteko gazte gehienek (%80,1) D ereduan ikasi dute, eta 55 urtetik gorakoen artean, berriz, ez dago zarauztarrik eskola garaietan euskaraz ikasterik izan zuenik. Gazte gehienek (%91,0) euskaraz ondo irakurtzen dutela diote, eta ehuneko hori %33,2ra jaisten da 55 urtetik gorakoen artean. Alde handiak, beraz, muturreko bi belaunaldi horien artean: gazteak askoz ere prestatuagoak daude euskaraz irakurtzeko, belaunaldi zaharragoak baino. Logikari jarraituz, gazteek baliatu behar lituzkete gehien euskarazko hedabideak. Datuek, ordea, ez dute horrela-ko joerarik erakusten: gazteenek irakurtzen dute gutxien euskaraz, eta gainerakoen artean ez dago ezberdintasun handirik.

Adinaren aldagaiari dagokionez, beraz, azpimarratu nahi dugu telebistaren eta prentsa idatziaren kontsumoan joera *euskaldunagoa* erakusten

dutela zaharragoek eta *erdaldunagoa* gazteagoek. Ikerketaren emaitza kez-
kagarrienak dira horiek, gure ustez. Adin tarteen joera desberdinen arra-
zoi nagusia zein den azaltzerakoan, telebistarentzat, behintzat, batek bai-
no gehiagok esango du euskal telebisten eskaintzan, programazioan,
bilatu behar dela. Arrazoibide horri jarraituz, ETB1ek eskaintzen duena
zaharragoentzat erakargarriagoa litzateke gazteagoentzat baino, eta
horrek azalduko luke telebistaren kontsumo-ohitura *euskaldunagoa* edo
erdaldunagoa izatea adin tarte bakoitzean.

Guk ez dugu horri buruzko iritzi sendo bat izateko moduko elemen-
turik. Telebista eta prentsa idatziaren datu guztiak irakurrita, ordea,
badugu aski arrazoi pentsatzeko, programazio eta eskaintzaz gain, beste-
lako arrazoi batzuk ere egon daitezkeela. Zoru soziolinguistikoarekin
harremanetan jarrita ez bada (belaunaldi berrien euskara mailarekin
edo), guri zail egiten zaigu datu horiek interpretatzea. Eremu eta garai
gehiagotako datuak bildu eta aztertu beharko dira fenomeno horren
diagnosian sakondu ahal izateko. Dena den, zerbait oker doa Zarauzko
belaunaldi berriek ez badute belaunaldi zaharragoek baino gehiago ikus-
ten eta irakurtzen euskaraz.

14. Euskarazko hedabide baten kontsumitzaile direnak beste euskal hedabideen kontsumitzaile izateko joera handiagoa dute. Kontsumo askotarikoaren fenomeno

Hurrengo gogoetak euskarazko hedabideen kontsumo askotarikoa du
hizpide. Izan ere, euskarazko hedabide bat ikusteko edo irakurtzeko ohi-
tura duten herritarrek euskarazko gainerako hedabideak ere sarriago
ikusteko edo irakurtzeko ohitura dutela adierazten dute gure inkestako
datuek. Adibidez, bezperan ETB1 ikusi zutenak %48,2 dira *Hitza* irakurri
zutenen artean eta %19,6 *Hitza* irakurri ez zutenen artean. Eta alderan-
tzez, *Hitza* irakurri zutenak %44,3 dira bezperan ETB1 ikusi zutenen arte-
an eta %17,2 besterik ez ikusi ez zutenen artean. Kalkuluak herritar elebi-
dunak soilik kontuan hartuta eginez, bezperan ETB1 ikusi zutenak %48,4
dira *Hitza* irakurri zutenen artean eta %29,7 *Hitza* irakurri ez zutenen
artean. Eta alderantziz, *Hitza* irakurri zutenak %46,4 dira bezperan ETB1
ikusi zutenen artean eta %28,1 besterik ez ikusi ez zutenen artean.


*Prentsa idatziaren
esparruan, belaunaldi
gazteenaren joera
erdaldunagoa izatea eta
gainerako adin tarteen
artean alderik ez ikustea,
joera aipagarriak
iruditzen zaizkigu. Izan
ere, hizkuntzaren
ikuspegitik oso ibilbide
ezberdinak izan dituzten
belaunaldiek ari gara,
eskolatzeari dagokionez,
gehienbat.*

Logikari jarraituz,
gazteek baliatu behar
lituzkete gehien
euskarazko hedabideak.
Datuek, ordea, ez dute
horrelako joerarik
erakusten: gazteenek
irakurtzen dute gutxien
euskaraz, eta gainerakoen
artean ez dago
ezberdintasun handirik.

Adinaren aldagaiari
dagokionez, beraz,
azpimarratu nahi dugu
telebistaren eta prentsa
idatziaren kontsumoan
joera euskaldunagoa
erakusten dutela
zaharragoek eta
erdaldunagoa gazteagoek.


Ikerketaren emaitza
kezkagarrienak dira
horiek, gure ustez.

13. ETB1 TELEBISTAREN IKUSLEAK, BEZPERAN HITZA IRAKURRI ZUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. ZARAUTZ, 2006 (15-69 urteko herritar guztiak eta elebidunak, %)



Iturria: Aztiker, Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006

14. HITZA EGUNKARIAREN IRAKURLEAK, BEZPERAN ETB1 IKUSI ZUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. ZARAUTZ, 2006 (15-69 urteko herritar guztiak eta elebidunak, %)



Iturria: Aztiker, Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006

Tankera horretako harremanak batere salbuespenik gabe egin ditzakegu ETB1en ikusleen, ZTBren ikusleen, *Hitza*ren irakurleen, *Berriaren* irakurleen eta *Txaparroren* irakurleen artean. Horietako edozein hedabideren kontsumitzaileek gehiago kontsumitzen dituzte gainerako hedabideak, kontsumitzaile ez direnek baino. Bost hedabide horien artean ezarri daitezkeen 10 bikote-harreman guztiei, salbuespenik gabe, alde bieta-

ra eragiten die arau horrek.⁷ Laburtuta, hortaz, euskarazko hedabide bat baliatzen duenak joera handiagoa du besteak ere baliatzeko.

15. EUSKARAZKO HEDABIDEEN KONTSUMO GURUTZATUA. KONTSUMO ASKOTARIKOAREN FENOMENOA. ZARAUTZ, 2006 (15 eta 69 urte bitarteko herritarrek, %)

	GUZTIAK	EUSKALDU NAK	ETB1 bezperan ikusituenen artean...	ZTB bezperan ikusituenen artean...	HITZA bezperan irakurrituenen artean...	BERRIA bezperan irakurrituenen artean...	TXAPARRO azken hilabetean irakurrituenen artean...	PAGOETA azken hilabetean irakurrituenen artean...
ETB1 bezperan ikusi zuten (%)	29,7	38,8	100,0	64,4	48,2	48,8	39,9	33,8
ZTB bezperan ikusi zuten (%)	4,5	5,0	9,6	100,0	6,9	8,9	7,1	4,1
HITZA bezperan irakurri zuten (%)	24,4	34,5	44,3	35,7	100,0	56,3	48,2	49,3
BERRIA bezperan irakurri zuten (%)	8,9	12,8	16,5	17,1	20,6	100,0	20,0	29,7
TXAPARRO azken hilabetean irakurri zuten (%)	55,3	55,6	55,7	71,4	69,9	75,0	100,0	75,0
PAGOETA azken hilabetean irakurri zuten (%)	15,0	15,3	13,3	12,0	18,8	30,1	20,2	100,0

Iturria: Aztiker, *Hedabideak eta Euskara Zarautzen, 2006*

Datu horiek iradokitzen digute, euskarazko hedabideen artean, merkatu mailan sortzen den lehia-harremana baino indartsuagoa izan daitekeela elkarren arteko trinkotze efektua. Pentsa daiteke joera hori euskarazko hedabideen eskaintza urria den heinean izango dela indarrean. Eta eskaintza hori ugarituko balitz, lehia-harremanek garrantzia handiagoa hartuko luketela. Gaiaren inguruko ondorio sendoagoetara iristeko, hala ere, audientziaren, serie historikoen eta beste eremuetan agertzen diren datuen azterketak egin beharko lirateke.

Ikerketa horien zain, eta aurreko argudioari tiraka, esan dezakegu euskarazko hedabide bati interesatzen zaiola gainerakoak ere indartsu egotea. Hau da, ETB1eko arduradunentzat albiste ona dela *Berriak* irakurle asko izatea, eta *Berriako* arduradunentzat albiste ona dela ETB1ek ikusle asko izatea. *Hitzako* arduradunentzat berri ona beharko luke izan tokiko aldizkariak indartsu izatea eta baita alderantziz ere. Ez dakit, ordea, horren kontzientziarik ba ote den gurean. Ez dakit euskarazko hedabideak bata besteari begira jartzen direnean, ikuspegi hori gailentzen den edo lehiakide gisa ez ote dioten begiratzen elkarri. Hori, hala ere, arratsaldean argituko digute hedabideetako arduradunek.

*Zerbait oker doa
Zarauzko belaunaldi
berriek ez badute
belaunaldi zaharragoek
baino gehiago ikusten eta
irakurtzen euskaraz.
Euskarazko hedabide bat
baliatzen duenak joera
handiagoa du besteak ere
baliatzeko.*

15. Amaitzeko

Amaitzeko, azkar-azkar, ideia nagusiak zein diren gogorarazi nahi nituzke:

- Lehenengo, aztertutako datuek berresten dute hedabideek garrantzi handia dutela. Horretaz ez dugu asko hitz egin gaurkoan. Ez dut uste beharrezkoa denik ere. Hala ere, ideia nagusien artean horixe litzateke lehenengoa: zarauztarren egunerokotasunean toki oso handia betetzen dute gaur egun hedabideek. Oso errotua dago egunkariak irakurtzeko ohitura, eta zer esanik ez telebista ikustekoa. Gure denboraren zati oso handia ematen dugu horretan.
- Bigarrena, zarauztarrek erdaraz ikusten eta irakurtzen dituzte nagusiki telebistak eta egunkariak. Zehazki, euren denboraren %20 inguru besterik ez dute ematen euskarazko hedabideak ikusten eta irakurtzen; gainerako %80a erdaraz egiten dute. Euskaldunek ere nagusiki erdarazko egunkari eta telebistetara jotzen dute.
- Zarautzen euskara dakitenen eta erabiltzen dutenen kopuruak hartuta, euskarazko hedabideen kontsumoa horien oso azpitik gelditzen da. Leize handia dago oinarri soziolinguistikoaren eta hedabideen kontsumoan euskarak hartzen duen tokia artean. Erabilerari dagokionez, euskara erdararen parean edo horren gainetik dago. Hedabideen kasuan, ordea, lau aldiz gehiago erabiltzen dituzte zarauztarrek erdarazko hedabideak euskarazkoak baino.
- Hori horrela izateko arrazoi nagusi bat eskaintza datza. Euskarazko eskaintza askoz ere urriagoa baita erdarazkoa baino. Euskarazko hedabideak banaka hartuta, horietako ia guztiek ikusle eta irakurle asko dituzte Zarautzen, erdarazko hedabide gehienek baino gehiago. Hedabide gutxi dira, ordea, erdarazkoen ondoan. Euskaldunen merkatuan euskarazko produktuak saturaziotik urruti daude oraindik. *Hitza*-rekin ikus dezakegu, euskarazko hedabide berri bat sortzeak euskarazko kontsumoa handitzea dakarrela.
- Eskaintzaren auziaz gain, bestelako aldagai soziolinguistikoekin oso lotuta azaltzen zaigu euskarazko hedabideak gehiago edo gutxiago ikustea eta irakurtzea. Hizkuntza gaitasuna, erabilera eta euskararekiko jarrera subjektiboa, hirurek dute harremana telebista euskaraz gehiago edo gutxiago ikustearekin eta egunkariak euskaraz gehiago edo gutxiago irakurtzearekin. Horien artean hizkuntza gaitasunak (euskaraz ondo egiteko gaitasunak, kasu honetan) garrantzi berezia du. Epe luzeko ikuspegiz, horiek indartzea ezinbesteko oinarria da euskarazko hedabideak baliatuko dituztenen kopuruak handitzeko. Garrantzi berezia izango du belaunaldi berrien artean gaitasuna eta erabilera sendotzeak, ikusi dugun bezala, egindako argazkiaren alde ilunenetakoa horixe baitugu, gazteek gainerakoek baino gutxiago erabiltzen dituztela euskaraz-

ko hedabideak, teoriar euren hezkuntza-ibilbideak aurkakoa pentsarazten badu ere.

- Pentsatzekoa da, halaber, euskarazko hedabideak indartzea, ugartzea eta geroz eta erakargarriago egitea garrantzitsua izango dela herritarren hizkuntza gaitasuna eta erabilera ere sendotzeko.
- Azken ideia aipagarria honako hau dugu: euskarazko hedabideen kontsumoa askotariko da. Euskarazko hedabide baten hartzaileak joera du gainerakoetara ere jotzeko. Eta horrek ondorio honetara garamatza: egungo euskarazko hedabideak, lehiakide bezainbeste, elkarren laguntzaile dira espazio komun bat trinkotzeko lanean. Mundu globalizatu honetan, izan ere, geroz eta beharrezkoak izango dira euskarazko hedabideen inguruko azterketa eta estrategia bateratuak.

Beno, hauxe eman du Zarauzko ikerketak. Ikerketa hasi aurretik geure buruari egin genizkion galdera nagusi batzuk erantzun ditugulakoan nago. Bidean, berriz, galdera berriak ere sortu dira. Ea ondorengo mahai-inguruetan horietako batzuen erantzunak jasotzen ditugun. Eskerririk asko zuen arretagatik.■

OHARRAK

1. Euskararen Datu-Basea 1.0 (www.soziolinguistika.org/edb). 2001ko zentsuetan eta Inkesta Soziolinguistikoko oinarrituta egindako estimazioa.
2. CIES, *Komunikabideetako entzulegoaren ikerketa* (Euskadiko Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa), 2006ko lehen sei hilabetea.
3. EUSTAT: Denbora-aurrekontuen Inkesta, 2003 (www.eustat.es/elem/ele0004000/inf0004096_e.pdf)
4. Euskararen Datu-Basea 1.0 (www.soziolinguistika.org/edb). 2001ko zentsuetan eta Inkesta Soziolinguistikoko oinarrituta egindako estimazioa.
5. Interesgarria litzateke beste ikerketa batzuetan, irratira, Internetera, aldizkarietara eta bestelako kultur kontsumoetara ere hedatzea aztergaia.
6. Berez, horrela landutako datuek badute eragozpen bat. Izan ere, prentsa idatzian, hedabide batzuek (*Gara* edo *Diario de Noticias* egunkariak, adibidez) egunkari elebiduna argitaratzen dute. Produktu horiek erdaraz argitaratzen dituzte nagusiki, baina euskarak ere badu horietan tokia: gaiaren inguruko neurketen arabera, %19,6ko agerpena du euskarak *Gara* egunkarian, %6,1ekoa *Deian*, %4,5ekoa *El Mundon*, %2,0koa *El Paisen*, %1,8koa *Diario Vascon* eta txikiagoa gainerakoetan (Iturria: BASTERRETxea POLO, J.I., "Hedabideak eta hizkuntza: erdaren aldeko erreproduktzio mediatiakoa", NOR ikerketa taldearen *Hedabideak eta Euskal Herria* liburuan, UEU, 2000 eta BASTERRETxea, J.I., "Euskara eta egunkari eleanitzak", HIZNETeko ikasmaterialean: ARANA, E., BASTERRETxea, J.I. eta JAUSORO, N., *Gizartea, euskara eta komunikabideak*, 2001-2002 ikasturtea). Tamalez, ez dugu *Diario de Noticias* de Gipuzkoa egunkariari buruzko daturik. Egunkariak euskaraz irakurtzeko ohitura zehatz-mehatz neurtu nahiko bagenu, berez, egunkari elebidun horien irakurleen kasuan, galdetu egin beharko genieke bertan argitaratzen diren euskarazko eta erdarazko albisteak irakurtzeko duten ohiturari buruz. Esan beharrik ez dago, baina, horrek izugarri zailduko lukeela gure lana, eta elkarriketatuen pazientzia agortzeko arriskua ere ez litzakeela nolana hikoia. Informazioa horrela biltzeko eta prozesatzeko zer lan eskerga eragingo lukeen ikusita eta elkarriketatuei zer enbarazu sortuko geniekeen jakinda, ez zuela merezi erabaki genuen. Batez ere, argi genuelako, sakonean, egindako azterketaren emaitzak ez zituela asko baldintzatuko. Ez dakigu, noski, azterketa horrela egin izan bagenu zein izango litzatekeen euskararen erabilera tasak hartuko zukeen balioa. Kalkulu bat landu dugu, ordea, egunkari elebidun horiek ere kontuan hartuta. Horrela, prentsa idatzirako, egunkari

Datu horiek iradokitzen digute, euskarazko hedabideen artean, merkatu mailan sortzen den lehia-harremana baino indartsuagoa izan daitekeela elkarren arteko trinkotze efektua.

***Ikerketa horien zain, eta
aurreko argudioari tiraka,
esan dezakegu euskarazko
hedabide bati interesatzen
zaiola gainerakoak ere
indartsu egotea***

bakoitzaren irakurle elebidunak, egunkaria irakurtzen ematen duten denbora eta egunkari bakoitzean euskarak duen lekua kontuan hartuta, (betiere egunkari horietako irakurle euskaldunek euskarazko zein erdarazko albisteak maila berean irakurriko dituztelako hipotesia eginez), euskarazko kontsumoa zenbaiten egongo litzatekeen kalkulatu dugu, eta kalkulu horien arabera, %20,1 beharrean %22,5 ingurura igoko litzateke euskararen erabilpen tasak hartuko lukeen balioa. Kontuan har bedi ohar hau datuak ikusterakoan.

7. *Pagoeta* aldizkariaren kasuan, tankera horretako harremana aurkitzen dugu *Hitza*, *Berría* eta *Txaparrorrek*in, baina ez ETB1 eta ZTB telebistekin. Aldizkari hori Zarauzko mendi elkarteak bere bazkideen artean banatzen du.